

Enpresetan euskararen erabileraren sustapena planifikatzeko, egungo egoeraren berri jaso nahi izan du Arabako Foru Aldundiak. Horretarako, Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzarekin elkarlanean, galdetegi bat diseinatu du eta horri erantzutea eskatu die Arabako lurretan kokatuta dauden eta 50 langile baino gehiago dituzten enpresei.

Aldundiaren Ekonomiaren garapenerako atalak zehaztutako hasierako zerrendak 193 enpresen erreferentziak zituen, eta, azkenean, hainbat kontu bitarteko, hasierako unibertso hori 178 enpresatarara mugatu zen.

Galdetegiak 2 atal izan ditu (Enpresaren gaur egungo egoera: hizkuntzen presentzia eta erabilerari buruzko datuak eta Enpresaren beharrak) eta 18 galdera guztira (ikusirik eranskina).

Baimena eman duten enpresek aholkularien bisita izan dute elkarrizketa bidez gaian sakontzeko.

Lan horiek 2019ko iraila eta abenduaren artean egin dira.

Hauek ziren: 200 enpresekin harremanetan jarri eta galdetegi bat betetzera gonbidatu. Helburua da, gutxienez, 50 erantzun jasotzea (%25) eta 20 enpresa bisitatzea gaiari buruz zuzenean hitz egiteko (%10).

Emaitzak izan dira:

- Unibertso osoarekin jarri gara harremanetan, posta edo telefono bidez. 178 enpresa.
- Enpresen herenaren datuak jaso dira. 56 galdetegi bete dira, 59 enpresen datuak emateko (%33).
- 20 enpresek onartu dute bisita eta elkarrizketatu ditugu (%11).

Beraz, lagin horrekin eta %95eko fidagarritasunarekin, inkestaren emaitzen errore tarteak %10ekoa da.

Bestalde, ahalegina egin da ezaugarri desberdinak dituzten enpresen erantzunak jasotzen (industrialak, zerbitzuak eskaintzen dituztenak...) eta Kuadrilla guztietatik

	Kuadrilla	Enpresa kopurua	
	Vitoria-Gasteiz	45	
	Aiara	7	
	Arabako Lautada	0	
	Guardia-Arabako Errioxa	3	
	Gorbeialdea	3	
	Añana	1	
	Kanpezu-Araba Mendialdea	0	
	GUZTIRA	59	

*Irudia: Wikipedia

GALDETEGIAREN EMAITZA OROKORRAK

Aurreikus zitekeen bezala, gaztelania da enpresa gehienetan gehien erabiltzen den hizkuntza. Horretaz gain:

- Enpresa gehienek adierazi dute (%77) euskarak baduela nolabaiteko presentzia edo erabilera haienean, baina, gehienetan, (%64) txikia da.
- Hizkuntza-pasaian duen presentziari dagokionez, euskara da bigarren hizkuntza: enpresen %61ean du presentzia. Enpresa kopuruari dagokionez, hedadura handia bada ere, sendotasun txikikoa da. Enpresen %18an du presentzia handia, %14an ertaina eta %29an txikia.
- Publizitate-euskarriari dagokienez, euskara enpresen %47an erabiltzen da, baina, hirugarren hizkuntza da, gaztelania eta ingelesaren atzetik. Euskarak presentzia handia du enpresen %18an eta ertaina %11an.
- Enpresa guztiek dute webgunea gaztelaniaz (%100), gehienek dute ingelesez (%61), ia erdiek euskaraz (%41) eta herenak beste hizkuntza batean (%32). Ingelesak enpresen erdietan du presentzia handia (%45) edo ertaina (%5). Euskarak heren batean du presentzia handia (%20) edo ertaina (%16).
- Enpresen %71k du nolabaiteko gaitasuna lehenengo arreta euskaraz emateko, baina gehienek txikia dute (%41). Enpresen %7ak du euskaraz artatzeko gaitasun handia eta %23k ertaina. Beraz, %30ak bermatu ahal izango luke nolabait lehenengo arreta hori. Enpresen %29k zehaztua du pertsonak artatzeko hizkuntza irizpidea, %61k ez.

- Hizkuntza gaitasunari dagokionez, ingelesaren ezagutza handiagoa da euskararena baino. Enpresen erdiak (%50) euskara gaitasun apala du enpresan, %1 eta %20 artean. Enpresen %26an langileen erdia edo gehiago euskaraz aritzeko gai da (%41-%100). Horien artean dago langileen gehiengoa euskaraz aritzeko gaitasun duten enpresen %13a.
- Ingelesa euskara baino gehiago eskatzen da kontratazio berrietan. Euskara enpresen %18ak eskatzen du beti, eta %34k batzuetan. Ingelesa beti
 - Enpresek Administrazioarekin dituen harremanei dagokienez, enpresen %69 erabiltzen du euskara Administrazioarekin. Hala ere, erabilera hori handia edo ertaina %12 eta %16re kasuan da hurrenez hurren. Hau da, enpresen 41ek euskara gutxi erabiltzen du, eta enpresen %28k ez du euskara erabiltzen.
- Azken bi urteotan, galdetegia erantzun duten enpresen %48k ingelesaren presentzia, erabilera eta ezagutza bultzatzeko neurriak hartu dituzte. Euskara sustatzeko enpresen %36k hartu ditu neurriak azken bi urteotan eta %55ek ez du inolako neurririk hartu.
- Enpresen %52k ingelesa bultzatzeko interesa izango lukete eta %41 dira euskara areagotzeko neurriak hartzeko interesa luketenak.
 - Landu nahiko luketen arloari buruz galdetuz gero, gehien aipatzen duten arloa *Bezeroari zuzendutako dokumentazioa* da, enpresen %50ek landu nahiko luke arlo hau. Gehien aipatzen duten hurrengo arloa *webgunea* genuke, enpresen %48 landu nahiko luke. Hori horrela, zerbitzua euskaraz emateari garrantzia ematen diotela ikus dezakegu, bezeroari zuzendutako dokumentazioaz gain, enpresaren irudi eta bezeroen gune izan daitekeen webguneari ematen baitiote garrantzia gehien.
 - Hauen atzetik datoz langileei lotutakoak, enpresen %47k landu nahiko luke *langileei zuzendutako dokumentazioa* eta %45ek *langile kualifikatuen hautaketa*.

- Laguntza motari dagokionez, Formazioa da enpresen gehien aipatzen duten laguntza, galdetegia erantzun duten enpresen %66k aipatu du honen beharra, dirulaguntzak beharko lituzkeela aipatzen du galdetegia erantzun duten enpresen %57k. Itzulpeni dagokionez, enpresen %55k itzulpen teknologia beharko lukeela dio eta, enpresen %45ek itzulpenak, Informazioa eta sentsibilizazioaren beharra aipatzen dute enpresen %43k eta, amaitzeko, %41ek adierazi du aholkularitza baten beharra duela.

- Hizkuntza-kudeaketak enpresaren zein arlo laguntzen duen galdetuz gero, ikus dezakegu arlo guztiei ematen dietela garrantzia handia. Esaterako,

%83k irudia eta %76k kalitatea hautatu ditu. Legea betetzea izan da gutxien hautatu dena (%41). Ondoriozta dezakegu, enpresa gehienek ez dutela 1982ko Euskararen Legearen berri.

- Amaitzeko, beste bi aipamen. Hizkuntza-kudeaketaren gainean galdetuta:
 - Enpresa gehienek ez dute bezero eta langileen hizkuntza-beharren diagnostikoa egin (%61).
 - Enpresen %12k dauka hizkuntza-kudeaketaren ardura duen lantaldea, %78k ez du gaiari buruzko ardura duen lantalderik, eta %10ak ez daki erantzuten edo ez du erantzun.

- Enpresen %34k praktiketako ikasle elebidunak hartzen dituela esan du, baina, elkarrizketetan entzundakoa kontuan izanda, zalantza dugu galdera ondo ulertu ote den.